

ONARRIZKO BALIABIDEAK

Rain Energy proiektua garatzeko, oinarrizko baliabide sendoak behar ditugu, bai ekonomikoki bai teknikoki. Gure helburua ez da produktu bat saltzea soilik, baizik eta epe luzeko proiektu iraunkor bat sortzea, energia garbia sortzeko eta gizarteari onurak ekartzeko. Horretarako, negozio-plan ona behar dugu, eta finantzakuntza-iturri desberdinak erabiliko ditugu, hala nola gure aurrezkiak, inbertitzaileen ekarpenak, dirulaguntzak eta banku-maileguak.

Lortzen ditugun baliabide ekonomikoak gure produktua garatzeko, hobetzeko eta merkatura eramateko erabiliko ditugu. Rain Energy-ren helburu nagusia energia berriztagarria sustatzea da, baina baita lanpostuak sortzea, teknologia berritzailea erabiltzea eta eraginkortasuna handitzea ere, ingurunea errespetatuz.

Gure proiektua finantzatzeko hainbat aukera ditugu, eta guztiak baliabide funtsezkoak dira:

- Gure aurrezki propioak erabiltzea,
- Inbertitzaileen laguntza bilatzea,
- Gobernuari dirulaguntzak eskatzea,
- Banku-mailegu bat eskuratzea.

Baliabideak ondo kudeatzeko, batzuetan zeregin batzuk kanpoko enpresen esku utziko ditugu (externalizazioa), horrek kostuak murrizten lagunduko duelako eta gure taldeak funtsezko lanetan zentratzeko aukera emango duelako. Aldi berean, gastuak kontrolatzea ezinbestekoa da, eta horretarako merkatuaren azterketa egingo dugu eta baliabide bakoitza arduraz erabiliko dugu, alferrikako gastuak saihestuz.

Rain Energy-ren helburu nagusia energia garbia ekoiztea da, baina baita gizartearentzako onurak sortzea ere. Gure proiektuak honako hauek bilatzen ditu:

1. Energia berriztagarria sustatzea
2. Enplegua sortzea
3. Ekonomia lokala indartzea
4. Teknologia berritzailea erabiltzea
5. Eraginkortasuna eta iraunkortasuna bermatzea

Ez da nahikoa baliabideak edukitzea; garrantzitsua da hauek nola erabiltzen ditugun jakitea. Batzuetan, baliabide batzuk kanpoko enpresen esku uztea erabaki dezakegu. Horri externalizazioa deitzen zaio eta honako abantailak ditu: kostuak murrizten laguntzen du, gure enpresak garrantzitsuen diren zereginetan zentratzeko aukera ematen du eta espezialista

profesionalen lana aprobetxatzea ahalbidetzen du.